



**Berritzeguneak**  
Vitoria-Gasteiz



**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Prestakuntzan eta Hezkuntzaren  
Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Centros de Apoyo a la Formación e  
Innovación Educativa

**DC1015e**

Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
0	1-09-05

## 1.2. PLAN ESTRATEGIKOA

Vitoria-Gasteizko Berritzeguneen **MISIOA** honako hau da: ikastetxeetako irakasleak eta lan-taldeak prestatzea eta aholkatzea, hezkuntza komunitatearen eskakizunei erantzuna emateko. Berritzegunea da horretarako topagunea, eztabaidagunea eta esperientziak elkartrukatzeko gunea, ikasleekin ikasgelan egiten den esku-hartzea hobetzeko eta erantzun egokiak eta sistematizatuak emateko.

1- Berritzeguneak, irakasleek eta hezkuntza komunitateak azaltzen dituzten premiei taxuzko erantzuna emateko, ikastetxeetara hurbiltze eta bertaratze prozesua hobetuko du. Horretarako, Erreferentziazko Aholkularitza bultzatu eta une eta egoera bakoitzean biderik egokiena hautatuko du.

2- Berritzeguneak, hezkuntza-eskuhartze berriak bultzatu asmoz, ikastetxeei berriazko zein informazio orokorra helaraziko die esperientzien trukaketa eta ikastetxeen arteko elkarlana sustatzeko.

3- Berritzeguneak, baliabide didaktiko eta teknikoek zerbitzua bultzatuko du:

materialak etengabe eguneratuko ditu  
baliabideak arakatu eta aukeratuko ditu  
material berriak sortuko ditu  
ebaluazioak egingo ditu eta erabilera didaktikorako iradokizunak eman  
zabalkunde bide desberdinak erabili eta mailegua erraztuko ditu

4- Berritzeguneak, kideen arteko trukea eta elkar-jartzea bultzatu asmotan, kideen arteko barne koordinazioa planifikatuko du:

Egungo taldeak sendotuko ditu eta, behar denean, beste berri batzuk sortu, premien edota eskakizunen arabera.  
Kideak biltzeko, informazioa emateko eta komunikatzeko bide arinak ezarriko ditu.  
Berritzegunearen eginkizun komunak berriazkoen aurrean jarriko ditu.

5- Berritzeguneak, ikastetxe bakoitzaren egoera kontuan izanik, ikerketa, berrikuntza eta hezkuntzaren hobekuntza ekarriko dituzten prozesuak bultzatuko ditu. Langintza honetan, ikasleekin egiten diren aplikazioetan laguntza emango du.

6- Antzemandako beharrak kontuan izanda eta etengabeko gaurkotzea ziurtatu asmoz, Berritzeguneak bertako langileen prestakuntza eta auto-prestakuntza bultzatu eta bideratuko ditu.

7- Aniztasunari eta Hezkuntza-premia bereziei arin eta eraginkortasunez erantzun die Berritzeguneak. Honen inguruko esku-hartzeak baterabilduzko eskolaren eremuan emango dira.



**Berritzeguneak**  
Vitoria-Gasteiz



**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Prestakuntzan eta Hezkuntzaren  
Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Centros de Apoyo a la Formación e  
Innovación Educativa

**DC1015e**

Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
0	1-09-05

8- Berritzeguneak urteko lan-egitasmoa prestatuko du. Egitasmo horrek helburu zehatzak eta lehenetsiak jaso, ebaluazio eta jarraipen bideak ezarri eta Berritzeguneako giza-baliabideak koordinatu eta optimizatuko ditu. Hau guztia bideratzeko ondokoak izango ditu kontuan:

Sailaren lehentasunak  
Ikastetxeen eskakizunak  
Aurreko ikasturteetako ibilia.

9- Eskolaren baitan eguneroko esku-hartzeak hobetuko dituen "Berrituz hobetzea" asmoa aurrera eramateko, Berritzeguneak harremanak izango ditu Hezkuntza Sailarekin eta Hezkuntzaren inguruko proiektu eta gaietan murgilduta dabiltzan bestelako erakundeekin.

Gure **HELBURUA (AMETSA)**, Vitoria-Gasteizko Berritzegunea Arabako ikastetxeen erreferentziarako zerbitzugunea izan dadin lortzea da,

proposamenak eskaini eta beharrezanez erantzuteko gai izanik irakasleei zein ikastetxeei asebetzeko zerbitzua emanik berrikuntza ildo zehatzak proposaturik lan-giro aproposa bultzaturik

Hau guztia, Arabako hezkuntza kalitatea hobetzeko asmo bakarrarekin.